

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

HABIOS proiektuaren bitartez GPSa jarri zaie okil gibelnabarraren bederatzi ale berriri, haien ohiturak ezagutzearren

Okilaren %99a Nafarroako pagadietan bizi da

Asteartea, 2018.eko ekainak 19

Okil gibelnabarraren bederatzi aleri GPS emisoreak jarri zaizkie haien mugimenduak erregistratu eta Nafarroako pagadietan haien presentziari eta ohiturei buruzko informazioa lortzeko helburuarekin. Esperientzia Pirinioetako ekosistemetarako POCTEFA HABIOS proiektuaren barnean sartzen da, eta horren helburuetariko bat da espezieak eta horien habitatak hobeto ezagutzea.



Mugimenduak jarraituko dituen nabigatzailea ezarrita duen okil gibelnabarra (kolore gorria atzeman daiteke buruan).

GPSarekin ekipatutako bederatzi ale iazko udaberrian markatutako beste hiruri gehitu behar zaizkie. Teknologia-mota hori estreinatu zuten, hegaziaren tamaina txikiarentzat hain arina eta egokia.

Okil gibelnabarra okil-motako txori bat da, Estatuan ia eskusiboki Nafarroan dagoena; izan ere, zenbatetsitako 100 bikotetatik soilik bat aurkitu da Nafarroatik kanpo, hots, Aragoi. Ondo kontserbatutako pagadietan bizi da, baita ere mehatxatutako beste espezie batzuekin batera, hildako egurra, zuloguneak eta ondo kontserbatutako basoetako bestelako ezaugarriak behar dituztenekin.

Guztira, zortzi hegazti helduri eta habiatik atera berria den bati 3,5 gramoko GPS emisorea jarri zaie, okil gibelnabarraren mugimenduak zehatz-mehatz erregistratzeko aukera ematen duen aparatua. Era horretan, espezie hori kontserbatzeko basoan ezinbestekoak diren ezaugarriak zehaztu daitezke.

Jarduera Europako POCTEFA HABIOS programan kokatzen da; programa horretan parte hartzen du Gestión Ambiental de Navarra-Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN-NIK) enpresa publikoak, Foru Exekutiboaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura adskribatua denak, eta kanpoko aholkulariek eta Nafarroako Gobernuak Basozaingoak ere parte hartzen dute.

Lehen ondorioak: lurralde eta baso-eremu berezi gehiago

2017an markatutako hegaztien gainean egindako aurretiko analisisien arabera, espezie honek uste baino lurralde zabalagoak behar ditu. Orain arte uste zen kumeak aurrera ateratzeko, habiaren inguruan 30 hektarea behar zituela, baina ikusi da gutxienez 100 hektarea behar dituztela, eta aztertutako lurraldea gutxienez 400 hektareakoa dela. Halaber, egiaztatu ahal izan da azalera horren barnean hegaztiak basoko zenbait eremu hautatzen dituztela, eta beste eremu batzuk batere bisitatu gabe geratzen direla. Azkenik, habiak ez dituzte bereziki lurraldearen erdigunean kokatzen, joan-etorriak saiheste aldera; hortaz, kokapena hautatzerakoan irizpide horiek kontuan izaten dituzte.

Okil gibernabarrari dagokionean, HABIOS proiektuaren helburu nagusia da informazioa lortzea espeziearen kontserbazioa pagadien kudeaketarekin bateragarri egiteko, azken hori Nafarroako toki-erakunde askorentzat diru-sarrera iturria izanik. Era horretan, informazio hori erabili nahi da, irizpide zientifikoak aintzat hartuta, espezie hori bizi den pagadien baso-erabilerari buruzko gida egiteko.

POCTEFA-HABIOS eta Pirinioetako ekosistemen babesa

Proiektuaren %65a Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsak (FEDER) finantzatu du Interreg V-A Espainia, Frantzia eta Andorra (POCTEFA 2014-2020) bitartez. POCTEFAren helburua da Espainia-Frantzia-Andorra arteko mugako zonaren integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea. Laguntza ematen du mugaz haraindiko jarduerak ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak garatzeko, lurraldearen garapen iraunkorraren aldeko baterako estrategien bitartez.

HABIOS proiektuak Nafarroarako 300.000 € inguruko aurrekontua du, eta proiektuaren helburua da Pirinioetako ekosistemen eta haiekin lotutako biodibertsitatearen kalitatea babestea eta hobetzea; horretarako, espezie bio-adierazleak kontserbatzeko eta kudeatzeko jarduerak burutzen ditu, espezien ugartasunari eta haien habitatari buruzko ezagutza hobetzen du edo espazioak kudeatzen ditu mugaz haraindiko baterako estrategien bitartez, tokiko aktoreekin elkarlana eginaz.

Lanerako ildo nagusiak dira kudeaketa-esperientziak trukitzea eta biltzea, proiektu-eremuan oso ezagunak ez diren espeziekin (okil berdeak eta mozolo boreala) eta antzeko lan-metodologiak gauzatzea espezieak eta horien habitatak kudeatzerakoan lurralde ezberdinetan eta bi isurialdeen artean. Azken helburua da datuak denboran zehar homogeneousatu eta alderatu ahal izatea eta segimendurako zona pilotuak ezartzea, fauna elkartuko espezieko analisisien bitartez habitataren adierazleak definitzeko aukera ematen duten metodologia berriekin.

Emaitza nagusietariko bat da hautatutako espezieak hartzen dituzten jarduerak kudeatzeko gidalerroak ezartzea, toki eta eskualde mailan lurralde-agenteak tartean sartuz.



Orkilaren adina zehazteko hegoaren neurketa.